

Oinarrizko gaitasunak

Zientzia-, teknologia-
eta osasun-kulturarako
gaitasuna

Hizkuntza-komunikaziorako
gaitasuna

Matematikarako
gaitasuna

Gizarterako eta
herritartasunerako
gaitasuna

Giza eta
arte-kulturarako
gaitasuna

Material didaktikoa

Lehen Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

MiToen Sinfonia



Lehen Hezkuntzako 4. maila

ARTE HEZKUNTZA Musika



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLÍTICA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Material osagarria: <https://www.dropbox.com/sh/1jb9v9jsvtr9tzip/QepPX8xMe0>

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2012ko iraila

Ale-kopurua: 800 ale

Egilea: Ana Petirena Diaz

Kolaboratzailea: Nerea Terán Bergara

Itzulpena: ???

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa: Miren Unzurrunzaga Schmitz

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure - Lutzana-Asua ibilbidea, 24 A - 48950 Erandio

L.G.: VI 503-2012

Antzinako Grezian hasita, musika beti izan da hezkuntzaren parte. Platonek zioenez musikak adorea, balentria eta zuhurtzia ematen zion hiritzar libreari. Pitagorasek, berriz, matematika eta astronomiari atxikirik ikusten zuen musika. Gaur egungo pedagogoez ere musikaren ahalbide didaktikoak oso aintzakotzat dituzte. Musika, dena den, gure bizitza osoaren testuinguru bilakatu zaigu egungo baliabide ugariari esker. Musikaz inguraturik gaude eta musikaren eskutik egiten dugu lan eta jolas. Ikasi ere musikaren baitan egiten dugu sarri, baina gutxiengentan hartzen dugu musika ikasgaitzat. Xede horretara biltzen da hemen aurkezten dugun unitate didaktikoa.


Euskal irakaskuntzaren baitan, ikaslea haurtzarotik unibertsitaterainoko bidean musikaz inguraturik egiten du bidea. Eskolako lehen mailatik unibertsitate arloko Musikeneraino, euskal hezkuntzak ardua berezia eskaintzen dio musikari. Ardua horren froga dugu «Mitoen Sinfonia» deritzan baliabide didaktikoa. Bertan lotzen dira bi gizon handiren itzalak. Francisco Escudero musikariak, Jose Migel Barandiaranen kontakizunetan hartu zuen oinarri euskal musikaren eredu bikaina moldatzerakoan.

Gure kulturak erro sakonak ditu, baina etengabe ahalegindu behar gara espresio molde berrietara jaurtikitzen eta eraldatzen. Antzinako edukiak egungo ontzi estetikoetan: horra gure kulturak behar trataera. Pozik aurkezten dut gure kultura musikala hain ongi kudeatzen duen lagina.



Isabel Celaá

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua



Irakasgaia: Arte Hezkuntza-Musika

Gaia: «Mitoen Sinfonia»

Maila: LH 4. Maila

Saio kopurua: 6 saio

Proposamenaren testuingurua

Francisco Escudero goi mailako euskal musikagilea da. 2012ko urtean bere jaiotzaren mendeurrena bete da. Gure helburua, Unitate Didaktiko honen bidez musikagile bikain hau ikasleei ezagutaraztea da. Horretarako, **Mitoen Sinfonia** izeneko obra erabiliko dugu, lan hau baita euskal kultur ondareko harri bitxietako bat. Eta bide batez, gure ikasleek euskal kulturarako jaun handia izen den Joxe Miel Barandiaran ezagutzeko aukera izango dute.

Arte hezkuntza arloko proposamena denez, musikakoa hain zuzen ere, pertzepzio-alderdiekin lotuta dauden gaitasunak, esate baterako, entzumenezko bereizketa eta entzuketa ulerkorra, eta adierazpen-alderdiekin lotuak daudenak ere garatuko ditugu, alegia, prozedura artistikoen ekoizpen eta ulermenaren alderdiarenak.

Sekuentzia honek Curriculum ofizialak aurkezten dituen baldintzatzaile batzuei erantzuten die: oinarritzko gaitasunak, besteak beste.

Proposamen hau **giza eta arte-kulturarako gaitasuna** garatzeko zuzenduta badago, doinu, dramatizazio, ipuin edo musika tresnen erabilpenaren bitartez gure kulturarekiko ezagutza areagotzen denez gero, ondoren aurkezten dugun moduan gainontzeko guztiak ere landuko ditugu.

Laburbilduz, Francisco Escudero ezagutuko dugu, Mitoen Sinfoniaren doinu eta hiru kondairen bidez, Lamia, Torto eta Mateo Txistu, euskal kulturaren irudirik garrantzitsuenera gerturatuko gara, Joxe Miel Barandiaran. Azkenik hiru kondaira hauetatik, bat dramatizatuko dugu.

Landuko diren oinarrizko gaitasunak

- Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna (4 eta 7 jardueretan).
- Ikasten ikasteko gaitasuna (1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8 jardueretan).
- Matematikarako gaitasuna (7 jardueretan).
- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna (1, 3, 4, 5, 6, 7, 8).
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna (1, 2, 3, 5 eta 6 jardueretan).
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna (4 eta 7 jardueretan).
- Giza eta arte-kulturarako gaitasuna (1, 2, 3, 4, 5, 6, 7).
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8 jardueretan).

Helburu didaktikoak

- Euskal musika ondarearen musikagile bikainetako bat ezagutzea.
- Ikusmen eta entzumenaren bidez Mitoen Sinfoniaren egitura eta bertan parte hartzen duten instrumentuak ezagutzea.
- Musika esparru ezberdinak integratuz sinfoniaren mugimendu bat eszenaratzean era argi eta garbian adieraztea.
- Francisco Escuderoren bizitza ezagutzeko informazioa bilatzea eta hautatzea.
- Intentsitatea adierazteko ikurrak errespetatzea eta ezagutzea.
- Proposatutako jardueretan interesa, ahalegina eta kolaborazioa erakustea.

Edukiak

- Intentsitatea adierazteko ikurrak: grafiko zein keinuzkoak.
- Sinfoniak dituen mugimendu eta doinu ezberdinen bereizketa.
- Informazioa eskuratzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren erabilpena.
- Kontzeptu maparen bidez Mitoen Sinfoniako analisia.
- Francisco Escuderoren musika lanaren balorazioa gure kulturaren oinarrizko elementua bezala.
- Mitoen Sinfoniako mugimendu baten bitartez intentsitatea adierazteko ikurren ahots praktika.
- Sinfoniako mugimendu bakoitzaren doinu nagusiaren identifikazioa.
- Sinfoniako mugimendu baten interpretazioa eta dramatizazioa.
- Beltza ostinatoaren praktika.
- Taldekide zein banakako ekoizpenen errespetua.

Jardueren sekuentzia

I. Plangintza

- a. Gaiaren aurkezpena.
- b. Francisco Escuderon buruzko informazioaren hautaketa eta irakurketa ulerkorra.
- c. Francisco Escuderon musika-lan batzuen entzumen aktiboa.
- d. Mitoen Sinfoniaren egitura zein gaiaren ulermena eta entzumen aktiboa.

II. Gauzatzea

- a. Sinfoniaren pasarte baten ahots interpretazioa.
- b. Sinfonian agertzen diren kondairen irakurketa ulerkorra eta entzumen aktiboa.

III. Aplikazioa

- a. Sinfoniaren mugimendu baten jendaurreko dramatizazioa.

Ebaluazioa

Adierazleak

- Francisco Escudero euskal musika ondarearen musikagile bikainenetariko bat bezala igartzen du.
- Ikasitako Mitoen Sinfoniako elementuak kontzeptuen mapa batean azaltzen ditu.
- Mitoen Sinfonian kontatzen diren kondaira baterako eszenografia bat sortzen du.
- Irakaslearen aholkuak jarraituz, ordenagailuaren bidez Francisco Escuderon buruzko ikerketa bat egiten du.
- Intentsitatea adierazteko hitzak grafiko zein keinuz antzematen eta errespetatzen ditu.
- Bai taldeko bai bakarkako jardueretan interesa, ahalegina eta kolaborazio jarrerak azaltzen ditu.

Tresnak

Jardueren sekuentzian:

- 1,2 eta 5. jardueren galdetegia.
- 3. jardueraren kontzeptu mapa.
- Proposatutako jardueren gauzatzea.
- 7. jardueraren publikoaren galdetegia.
- 8. jardueraren unitateko ebaluazio galdetegia.

Irakasleak erabakiko dituen proposamenak.

Material osagarria

Sekuentzia hau bi power pointeko aurkezpenekin osatzen da.

Sarrera

Francisco Escudero XX. mendeko goi mailako euskal musikagilea da. 100 musika-lan baino gehiago konposatu zituen, eta hauen artean, bere obrarik magikoenaz egazutuko duzue: **Mitoen Sinfonia**.



Francisco Escudero eta bere sinfoniari buruzko gauza gehiago dakizkizu?

- 1. Zein eraikinek eramaten du bere izena?*
- 2. Mitoen Sinfonia zertan datza?*
- 3. Zeinek interpretatzen dute musika-lan hau, instrumentuak bakarrik, edo instrumentuak eta ahotsak elkarrekin?*
- 4. Nola imajinatzen duzu talde instrumentala, orkestra sinfonikoa bezala edo ganbarako orkestra bezala?*

Taldekideekin erantzunak komentatuko dituzue

Sinfoniari buruzko hausnarketa egin ostean, plangintza didaktiko honen bidez Francisco Escudero eta bere musika-lana, Mitoen Sinfonia, sakonago aztertuko duzue. Honen lehenengo mugimenduan, Escudero Maisuak Joxe Miel Barandiaraneri eskaintza bat egiten dio.

Eskaintzaren musika entzungo duzue, ondoren honen doinuak ikasiko dituzue eta ipuin soinudun bidez, mitologiaren munduan murgilduko zarete. Bukatzeko kondaira hauetatik bat eszenaratuko duzue.

1. Jarduera

Francisco Escuderoni buruzko informazioa jasoko duzue. Horretarako, proposatutako testua arretaz irakurri eta bukaeran agertzen den galdetegiari erantzun iezaiozue.

Ikerketa lana



Musikaren euskal artxiboan lan egiten duzue eta pertsona bat, musikagile donostiar bati buruzko informazioa eskatzera datorkizue. Galdera sorta batekin dator eta zuek, informazioa web orrialde hauetatik atera beharko duzue.

Galdetegiari Word formatuan erantzun eta lana bidali dizun pertsonari inprimatuta eman iezaiozue. Aurkezpenak txukun eta akats ortografiko gabe izan behar duela kontuan hartu behar duzue.

1. Zein herritan bizi zen Escudero Maisua? (3. orrialdea)

http://www.orcam.org/monograficos/17_escudero.pdf

2. 23 urte zituenean zer gertatu zitzaion? (4. orrialdea)

http://www.orcam.org/monograficos/17_escudero.pdf

3. Non izan zen musikako irakaslea? (azkenengo paragrafoa)

http://es.wikipedia.org/wiki/Francisco_Escudero_Garc%C3%ADa_de_Goizueta

4. Irakasle bezala jarduteaz gain, zein beste lanbide izan zituen? (4. paragrafoa)

<http://www.filomusica.com/filo30/escudero.html>

5. Escudero Maisuak bere desioa bete zuen?, Zergatik? (5. paragrafoa)

<http://www.filomusica.com/filo30/escudero.html>

2. Jarduera

Orain, Escudero Maisua hobeto ezagutzen duzue, bere arimaren soinua entzungo duzue: bere musika. Horretarako, sarea erabiliz berak sortutako musika-lanetik bi ezagutuko dituzue. Musika entzuteko azpian doazkizuen loturak idatzi behar dituzue.

Jarduera bukatzeko galdetegi bat erantzungo duzue.

2

Escudero Maisuaren musika nola irudikatzen duzu?



PIANO Y ORKESTRARAKO KONTZERTUA

http://www.euskadikoorkestra.es/es/discografia_todos_los_albumes_detalle.asp?v=s&id_discografia=42

ILLETA

<http://www.prestoclassical.co.uk/w/19703/Francisco-Escudero-Illeta>

Galdetegia

1. *Bi musika-lan hauetatik, zein gustatu zaizu gehien: «Illeta» edo «Piano eta Orkestrarako Kontzertua»? Zergatik?*
2. *«Piano eta Orkestrarako Kontzertuan», zein da musika tresnarik inportanteena?*
3. *Bi musika-lan hauetatik zein eszenaratu daiteke?*
4. *Zure ustez, «Illeta» zertan datza?*

3. Jarduera

Dagoeneko, Francisco Escudero eta bere obra ezagutzen duzue, horregatik bere konposiziorik maitagarriena ezagutzeko momentua iritsi da: Mitoen Sinfonia.

Horretarako, irakasleak jarriko dizuen power-point baten bitartez, zeini eskainita dagoen, zertan datzan, bere egitura nolakoa den, zenbat mugimendu dituen eta zeintzuk diren parte hartzen dituzten musika tresnak ezagutuko dituzue.

MITOEN SINFONIA

- Francisco Escudero
- On Joxe Miel Barandiaran
- Musika tresnak

Bukatzean, aipatu duguna, kontzeptu mapa batean seinalatuko duzue: musikagilearen izena, musika-lanaren izenburua, mugimendu bakoitzaren izena eta, azkenik, parte hartzen duten musika tresna bakoitzaren izena. Beraz, adi egon!



4

4. Jarduera

Sinfoniaren egitura ezagutu ondoren, lehenengo mugimenduaren doinua, «Eskaintza», abestuko duzue. Gogoratzten bazarete, On Joxe Miel Barandiaraneri eskainita dago.



Doinu honi ahalik eta probetxu gehien ateratzeko, hurrengo soinu ezaugarria erabiliko duzue: **intentsitatea**.

1. Lehenengo intentsitatearen ñabardurak adierazteko era ezberdinak ezagutuko dituzue.

Hitza	Laburdura	Esanahia
<i>Pianissimo</i>	<i>pp</i>	<i>Oso ezitia</i>
<i>Piano</i>	<i>p</i>	<i>Eztia</i>
<i>Mezzopiano</i>	<i>mp</i>	<i>Erdi ezitia</i>
<i>Mezzoforte</i>	<i>mf</i>	<i>Erdi fuerte</i>
<i>Forte</i>	<i>f</i>	<i>Fuerte</i>
<i>Fortissimo</i>	<i>ff</i>	<i>Oso fuerte</i>

2. Orain praktikatu. Aurrerago ikasiko duzuen doinuaren atal txiki bat ozen irakurri, hurrengo ñabardurak praktika itzazue: p-mf-ff-pp.
Zure irakasleak egingo dituen keinuetan arreta jarri behar duzue.

Agur Joxe Miel Barandiaran
Agur t´erdi

3. Bukatzeko, «Eskaintza»-ren doinu nagusiaren moldaketa bat interpretatuko duzue. Intentsitateko ñabardurak egitearren irakaslearen keinuak jarraitu behar dituzue.

Abesteko arnasketa egokia eta gorputz-jarrerara behar bezalakoa izan behar duela gogora ezazue.

Eskaintza

Soprano

On Jo - xe Mi-el Ba-ran-dia-ran A - gur. Eus-kal kulturaren Ai - ta len,

7 kul-tu-ra-ren ar - lo-ak kul-tu-ra-le-tik be-gi-ra-tu- ta A - gur Jo

13 xe Mi - el Ba - ran - dia - ran A - gur A - gur - t' er - di



5. Jarduera

Orain, Joxe Miel Barandiaranek bildu zituen kondairak ezagutzera zoazte. Mitoen sinfoniaren parte dira.

Bigarren power-point bat ikusiko duzue eta bertan, ipuinak irakurtzeaz gain, Escudero Maisuak kondaira bakoitzarako konposatu zuen musika ezagutuko duzue. Ondoren, hurrengo galdetegia erantzungo duzue:

5

Galdetegia

1. *Hauetako kondairaren bat ezagutzen al zenuen?*
2. *Ezagutzen bazenuen, non entzun zenuen?*
3. *Hiruetatik, zein gustatu zaizu gehien?*
4. *Musikak kondairak hobeto sentitzen lagundu dizu?*
5. *Zer sentsazio edo sentimendu sortu zaizkizu*



6. Jarduera

Mitoen Sinfoniaren kondairak ezagutu eta gero, nola irudikatzen dituzue pertsonaiak?

Orain hauek marraztuko dituzue. Horretarako, kondairen bigarren entzuketa bat egingo duzue eta bukatzean, arreta gehien deitu dizuen pertsonaia aukeratuko duzue. Honen izena idatzi eta gero, forma libre eta sortzailean marraztuko duzue.

6

IZENA:

7. Jarduera

Jarraian Mitoen Sinfoniaren bigarren mugimendua, «Lamia», eszenaratuko duzue eta horretarako gela bi taldeetan banatuko dituzue.

Dramatizazio honen pertsonaiak hurrengoak izango dira: narratzaile bat, lamiak (bat baino gehiago izan daitezke), gazteak (bat baino gehiago izan daitezke), eta musika tresnak (plakazko instrumentuak). Segidan doazkizuen pausoak jarraitu beharko dituzue.

Jarraitu beharreko pausoak

1. *Pertsonaien banaketa egin itzazue: narratzailea, lamiak, gazteak eta talde instrumentala.*

LAMIAK

Artistaren izena

GAZTEAK

NARRATZAILEA

MUSIKARIAK

2. Eszenaratzeko modu honetan antola zaitezte:

a. Narratzaileak hurrengo testua irakurriko du:

Lehenengo sorotik atera, sorotik atera.
Gero lehortu eta haziak baztertu.
Zapindu makilakin.

Zurezko trunkasekin trangatu azala eror dadila.
Txarrantxatu harizpiak banatzeko.

Harizpiak ardatzean jarri, iruin eta astalkatu
Egosi, errekan garbitu, josi edo soineko bihurtu,
erabili, hautsi.

b. **Gazteek** narratzaileak kontatzen duena antzextu beharko dute.

c. **Lamiek** erne entzuten dute eta keinuen bidez bere sentimenduak adieraziko dituzte. Ostinatoen erritmora ibiliko dira. Hasiera batean kontakizunarekiko interesa azalduko dute baina gero eta urduriagoak, gazteak behingoz kontakizuna bukatzea desiratuko dute. Oilarrak kantatuko duenean, garrasiz eta amorruz haien kobazuloan ezkutatuko dira.

d. Musika tresnek plakazko instrumentuekin ostinato hau eginez, alde batetik denboraren igarotzea oroituko dute eta, bestetik, narratzaileak bukatzen duenean, oilarraren kanta irudikatuko dute, modu libre eta sortzailean.



3. Eszena gelakideen aurrean interpretatuko duzue.

a. Eszenografia zaindu

b. Interpretazioa zaindu

Testuaren hitzak uler daitezela, begiratu hurrengo hiztegi piktografikoa dramatizatzeke garaian oso erabilgarri izango zaizuelako.

Sorotik atera



Lehortu, trangatu



Zapindu makilakin



Zurezko trunkasekin trangatu



Txarrantxatu



Ardatzzean jarri



Iruin, astalkatu



Talde bakoitzak antzestu duenean, publikoak ikuskizuna baloratu behar du. Horretarako ondoko galdetegia bete beharko duzue.

<i>Hurrengo alderdiak otik 10era puntuatu</i>	<i>Puntuazioa</i>
<i>Interpretazioa gustatu zait</i>	
<i>Koordinatua egon da</i>	
<i>Ostinatoa zehatza izan da</i>	
<i>Pertsonaiak naturalki antzestu dute</i>	
<i>Narratzaileak ongi ahoskatu du eta argi eta garbi ulertu zaio</i>	
<i>Lamiaren gogo-aldarte ezberdinak ulertu dira</i>	
<i>Linoaren nekeak ongi antzestu izan dira</i>	
<i>Obra bere osotasunean gustatu zait</i>	

8

8. Jarduera

Azkenik, sekuentzia honetan landu duzenari buruzko galdetegi bat erantzungo duzue.

Unitate honetako ebaluazio galdetegiari erantzun iezaiozu

1. *Euskal Mitologiatik ezagutzen dituzun pertsonaien izenak eta ezaugarriak aipa itzazu.*
2. *Mitologiari buruz ikasi dugun euskal konposizio musikalak, zer izen du? Zenbat mugimenduz osaturik dago?*
3. *Zein musika taldeak hartzen dute parte?*
 - Ahotsak bakarrik*
 - Ahotsak eta instrumentuak*
 - Instrumentuak bakarrik*
4. *Zein da Escudero Maisua? Dakizun guztia aipa ezazu.*
5. *Zein hizkuntzatan aurkitu duzu Francisco Escuderoren bizitzari buruzko informazioa?*
6. *Ikerlaria bazina eta sinfonia Mitikoa euskal kultur ondarearekin erabat lotuta dagoela kontuan hartuz, zein hizkuntzatan zabalduko zenuke zure ikerketa?*

7. Idatzi, azpian, musika-tresna hauen izena, eta esan zein familiakoa den (haizezkoa, haize metalezkoa, haize zurezkoa, soka kolpatua, soka igurtzia, soinu zehatzekoa edo soinu ez zehatzekoa).



















ERANSKINA

OINARRIZKO GAITASUNEN EBALUAZIOA

behaketa zuzenaren bidez

Gai da:
(1-etik 5-era)

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

1. Oinarrizko hiztegiaren erabilpena.
2. Kaligrafia garbia eta ortografia zuzena.
3. Testuaren ulermen orokorra.
4. Testu ezberdinen irakurketaren bitartez informazioa aurkitzea.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

5. Sarearen erabilpena informazio iturri gisa.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

6. Talde lanean partaidetza.
7. Elkarrizketa egoeratan iritzien adierazpena eta besteenak errespetatzea.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna

8. Adierazpen artistikoaren gozamina.
9. Beste adierazpen kode batzuk bereganatzea.

Ikasten ikasteko gaitasuna

10. Komunikazioko egoeratan arasketa, ahotsa eta gorputzaren erabilpen zuzena.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

11. Originaltasuna eta asmakuntza agertzea erantzunetan.
12. Lotsarik gabeko jokabideak.

Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna

13. Ahotserako osasungarriak diren ohituren praktikak.